

handik kanporakoa ere; labirintotik irten egin behar da, barruko misterioa aurkitu ondoren, kanpoko bizitzari berriro ekiteko. Euskararen berreskurapenaren bidegintzari irudia egokituz, zera esango nuke: Euskararen inguruan euskaldunon baterakuntza konpaktazioa, funtsezkoa izanik, bada noski erdigunerako bidean helburuko gela argitsua seinalatuko diguna, baina handik irteteko argi berriak piztu beharra dago, kanporako bidea argituko digutenak: Horien izenak dira “koordinazioa” eta “planifikazioa”. Egileak berak deitzen duen “tensión de ruptura” edo labirintotik itzulerako bideari ekitekoa gertatuko bada, euskararen inguruan bildutako indarrek elkarrekin koordinatu beharra daukate eta euskararen berreskurapenerako plangintza politikoa Euskararen politika egin beharra dago.

“La planificación lingüística” kapituluak, ordea, zortzi orrialde bakarrik ditu liburuan. Hizkuntzarekiko egitura eta mekanismo psiko-soziologikoak aurkitzeaz gain, horietan eragiteko baliabide sozio-politikoak diseinatu behar dira, indar sozialak antolatuz eta berreskurapenerako plangintza orokorra landuz.

Adorez eta Atseginez Mintegia liburuaren euskarazko argitalpen laburtua prestatzen ari omen da. Euskaratzeari oso egoki deritzot; laburtzea beharrezkoa gerta daiteke; nik birmoldaketaren bat ere eskatuko nuke, batetik didaktikoagoa egiteko, eta, bestetik, aipatu ditudan hutsuneak betetzeko edota zenbait elementu sakontzeko eta osotzeko. Zehazkiago esanda: batetik, ideien azalpen linealagoa lortu beharko litzateke, irakurlearen eta aztertzailearen mesedetan; bestetik, euskararen berreskurapenerako koordinazio sozialaren eta planifikazio orokorraren funtsezko arazoak eta baldintza nagusiak aztertu beharko litzuzke.

Euskararen berreskurapenaren makina oso konplexua da: horren mekanismo psiko-soziologikoekin batera horren artikulazio sozio-politikoak diseinatzea beharrezkoa da.

Ikastolen jaialdia: euskararen jaialdia?

Iaz ere, urtero ikastolen alde errepikatzen diren Herrialde-jaialdia burutu ziren: Bizkaiko Ibilaldia, Araba Euskaraz, Iparraldeko Herri urrats, Gipuzkoako Kilometroak eta Nafarroa oinez. Gipuzkoakoak XIV. urtea bete zuen. Besteak gazteagoak dira.

Orain neguan neguan gaudela eta aurtengo urteari eta ondoko urteei begira, beharrezkoa dirudi gogoeta eta eztabaida egitea, euskararen alorrean egiten diren ekintza herritar garrantzizko eta jendetsu horiei buruz.

Behin baino gehiagotan entzun izan da azken urteotan, gehienbat lagunarteko solasetan, ekintza horiek folklore huts eta hainbat herritarren kontzientzi lasaigarri bihurtu direla, gero urtean zehar ez euskara ikasten eta euskaraz egiten ahalegin-tzeko. Salaketaren egiaztagarritzat edo, nabarmendu ohi dute, hainbat lagunek erdaraz farra-farra iharduten duela festa horietan.

Egia da, garai bateko erromerien ordeztako ere bihurtu direla jaialdi horiek neurri batez; eta zalantzarik ez, zenbaitentzat (haibatentzat?) ez dutela jaialdiok norberaren euskararen aldeko erantzunkizuna berresteko helburua, ezta euskara bera ospatzekoa ere; bestalde, erronomia alai, bitxi eta... merkean eguna igarotzeko aukera ona ematen dutela.

Merkea, bai, zeren oraindik antolatzaileen helbururik zuzenekoena dirua biltzea izaten bada ere, bere ekarpen berezirik egin nahi ez duena ere lasai ibil bait daitezke jaialdiaren barrutian: inork ez du ezer pagatzera behartuko, ezta han eskaintzen diren espektakuluak ikustearen ordaintzat ere.

Hiru puntu daude hemen astintzekoak: 1. Jaialdion xedea bera; 2. Horien antolamenduko partaidetza; 3. Horietan zabaltzen diren giroa eta mezua.

1. Ikastolen alde dirua biltzea izan da jaialdion hasieratik helbururik zehatzena. Baina EAEn behintzat ikastolek badute beren finantzapen publikoa ere. Hori dela eta, horietan biltzen den diruaren parte handia Nafarroako eta Iparraldeko ikastolentzat joaten da. Hala ere, batek baino gehiagok uste du, ordua dela herrialde horietan ere erakunde publikoen aurrean ikastolentzako laguntza-errebindikazioak tinkoago ipintzeko, herritarrei dirua eskatzen ibili beharrean.

Dena dela, eta helburu ekonomikoa baztertu gabe, ez al da beharrezkoa -eta lehenagokoa gaur egun- jaialdi horiei beste helburu hau ematea nagusienik: jendearen euskararen aldeko jarrera eta erantzunkizuna piztea, alegia?

2. Ikastolen mugimenduaren sorreran eta historian sail guztietako herritarrek hartu izan dute parte, eta ez irakaskuntzan zihardutenek bakarrik. Era berean ikastolaren aldeko jaialdi horiek antolatzeko herriko sail guztietako lagunak ipini ohi dute beren lana. Gaur, ordea, guztiz garrantzizkoa izanik ere, sektoriala bihurtu da ikastolarena euskararen eta euskal kulturaren alorrean.

Ez al da jaialdi horien ikuspegi zabaltzeko ordua, euskararen jaialdi bihurtuz? Eta euskararen alde diharduten beste hainbat erakunderengana ere horietako emaitzak zabalduz, horiek ere antolamenduan parte hartzen dutenez gainera?

3. Jaialdion giro “komertzialak” (tabernak, dendak, pegatinak, errifak, etab.ek) badu bere zentzua, eta jendeak ondo ulertzen du, dirua batu behar delako. Jaialdion “jai-giroa” ere nabaria izan ohi da; baina euskararen jaiaren ideiak esplizitoagoa izan beharko luke, euskara ospatu ere egin behar delako. Diru-biltzearekin eta ospakizunarekin batera, euskararen aldeko errebindikazioak nabarmenagoa izan beharko luke. Eta azkenik -hobe, aurrenik- euskarari buruz jendea jaberaztea, horren aldeko jarrera zinezkoak zuzpertztea, eta bakoitzari bere erantzukizunak harreraztea zuzen-zuzeneko helburua izan beharko lukete jaialdiok.

Eta, jakina, sortu nahi den giroaren eta lortu nahi diren helburuen araberakoak izan behar dute zabalduko diren mezuek.

Dena dela, euskararen aldeko jaialdi herritarrei -aipaturikoei eta bestelakoei- eutsi egin behar zaie, inolako zalantza barik. Horietara halako jendetza inguratzea, besterik gabe, oso interesgarria da; egun horietan eta ingurukoetan komunikabideek ikastolen eta euskararen gaia erabiltzea guztiz mesedegarria da; urtean zehar jaialdia antolatzen herrian bertan esku hartzen dutenen ahalegina eta lankidetzak guztiz txalogarriak eta hunkigarriak dira: benetako auzolanak! Azkenik, euskararen izenean halako jendetza biltzeak herrian eta eskualdean egin dezakeen ukitua ere kontutan hartzekoak dira.

Arregiren aurrekontuak eta “Kultur Kezka”

Abenduaren erdialdera iragarri zituen Euskal Autonomi Elkarteko Kultura Kontseilariak 92. urterako aurrekontuak: ia 19.000 milioi, hots, 1991n baino 1.400 bat milioi gehiago. Kultura mundua, ordea, haserre bizian azaldu da, gehikuntzak ez bait du onik ekarri kasik inorentzat. Alderantziz, kultur esparru guztietan diru murrizketa ikaragarriak izan dira eta kasu askotan hutsean gelditu dira laguntzak. Izan ere, diru-igoera guztia eta beste 1.100 milioi gainera, gobernuarentzat oihartzun eta ospe handia lortzera zuzendutako hiruzpalau ekimenek jango dute: Expo'92ko EAEko pabiloiak, Guggenheim museoak eta Anoetako kirol eraikuntzek, besteak beste.

Jakina izango da dagoeneko, baina proiektutzar hauen inguruan datu pare bat emateak merezi du seguruenik. Expo'92an 1.400 milioi gastatuko ditu Eusko Jaurilaritzak (iaz 400 eta aurtan gainerakoak), *Estatu Batuek baino 400 milioi gehiago!* Guggenheim-i buruz esan daitekeen gauzarik larrienetakoa zera da: